

ADINEKO PERTSONENTZAKO EGUNEROKO EGOITZEI BURUZKO MOZIOA

Gipuzkoako egoitza eta eguneroko zentroetako langileak greba eta mobilizazioetan murgilduta daude lan-baldintza eta zaintza hobetzearen alde.

Pasa den urriaren 7tik 18ra Gipuzkoako lurralde osoko herri ezberdinetan (tartean Tolosan ere bai) protesta martxak egin zituzten langilek "Zaintzaileak zainduz, bizitzak zaindu" lelopean.

Behar beharrezkoa da egoitzetan eta egoitza hauek kudeatzeko ereduan, pertsonak lehenestea eta zaintzaren kalitatea bermatzea. Pertsonak lehenesten direnean erabiltzaile eta langileak ere zaintzen dira, ezin baitaiteke gauza bat ulertu bestea gabe.

Horregatik premiazkoa da langileen ordezkariak diren sindikatuak eta sektoreko patronala negoziazioetan murgiltzea, akordiorako borondatearekin garatuko den negoziazio fase berri bat zabalduz.

Hau dela eta...

1. Tolosako Udalak bere kezka adierazten du adinekoentzako eguneko zentro eta egoitzetan irekita dagoen lan-gatazkagatik, gatazkak luze irauteak zerbitzua gauzaterakoan erabiltzaileen eta haien senitartekoen artean eragin ditzakeen gorabeherak direla-eta.
2. Tolosako udalak elkartasuna agertzen die lan baldintza eta zaintza hobetzearen alde ari diren Gipuzkoako egoitzetako eta eguneko zentroetako langile guztiei, eta modu berezian Tolosako zaintza lanak egiten dituzten eta azpikontrataturako "Zu eta Biok" enpresako langileei.
3. Tolosako Udalak lan-gatazka honetan inplikaturako sindikatu eta patronaletako eragile guztiei eskatzen die bilatzeko gatazka amaituko duen akordio bat, Gipuzkoako adinekoentzako egoitza-zentroen lan-hitzarmenaren negoziazio mahaiaren esparruan.
4. Tolosako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio gatazka hau gainditu ahal izateko bideak jorratzen jarraitzea.
5. Tolosako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio, bereziki greba-aldietan eta haren ikuskaritza zerbitzuen bitartez, ematen den zerbitzuaren kalitatea zaintzeko eta bermatzeko greba-deialdietan parte hartzen duten zentroetan ezarritako gutxieneko zerbitzuak betetzen direla.

EAJ-PNV

PSE.EE

Tolosan, 2019ko urriaren 31an.